

ETXAURIBARKO OIKONIMIAREN BILKETA LANA EGITEKO BEKA BATERAKO DEIALDIA

1. Helburua.

Etxauribarko udalek deialdi hau egiten dute ibarreko oikonimia biltzeko lanean bekadun eginkizunetan arituko den pertsona bat hautatzeko. Lanaren sustatzaileak ibarreko udalak dira: Etxauri, Beraskoain, Bidaurreta, Etxarri, Etxauri, Zabaltza eta Ziritza. Lana Euskaltzaindiak zuzendu eta Euskarabideak koordinatuko du.

Zehatzago, lanaren asmoa da ibarreko etheen izenak biltzea, Nafarroako Gobernuaren kasuan kasuko datu-baseetan sartzeko, bai eta izen horiek osatzen duten ondare immateriala zabaltzeko ere. Lana egiteko, kontuan hartuko dira Euskaltzaindiak proposatutako jarraibideak eta arauak.

2. Onuradunak.

Beka hau lortu ahal izateko, hautagaiek unibertsitate-titulu bat dutela egiaztatu beharko dute, bai eta euskaraz C1 maila dutela ere.

Deialdi honetan, bakarka edo talde modura parte hartzen ahalko da. Azken kasu horretan, beka bakarra emango da, eta taldeak arduradun bat izan beharko du ordezkari.

Taldean aurkeztuz gero, soilik arduradunak beharko ditu unibertsitateko titulua eta euskarako C1 maila.

Interesa dutenek Etxauribarko edozein udalerritan erroldatuta egon beharko dute.

3. Bekadunaren edo bekadunen eginkizunak

- Agiri bat aurkeztu beharko du beka onartzen duela adieraziz, eta konpromisoa hartuz, halaber, lana egitea ezinezkoa gertatzen bazaio itzuli egingo duela beka.
- Zuzendari akademikoak proposatutako jarraibideei eta metodologiari lotu beharko zaie, eta, beharrezkoa izanez gero, beharrezko prestakuntza-saioetan parte hartu eta lan-bileretara joan.
- Horretarako sortutako lantaldearekin koordinatu beharko du.
- Bekaren ondorioz egindako lanaren jabetza Etxauribarko udalena izango da. Halere, aurrekoa gorabehera, lanaren emaitza modura egiten ahal diren argitalpen edo ekitaldietan, bekaduna edo bekadunak zein izan diren adieraziko da.

4. Lanen iraupena.

Lanak 2022ko azaroaren 30a baino lehen beharko du amaitua. Zirkunstantziek hala eskatzen badute eta zuzendari akademikoak egokitzat jotzen badu, epe hori 2022ko abenduaren 31ra arte luzatu ahal izango da.

5. Eskaerak.

Eskaerak Etxauriko udal erregistroan aurkeztu behar dira, edo telematikoki honako helbide honetan: udala@etxauri.es Eskaerarekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- NANaren edo identifikazio-agiri baten kopia.
- Banketxe batek emandako agiria, ziurtatzen duena badela aurten kontu korrante bat eskatzailea titular duena. (Kobratzeko erabili nahi den banku-erakundearen IBANa)
- Erroldatze-agiria, ohiko bizilekua Etxauribarko udalerriren batean duela egiaztatzen duena.
- Eskatzailearen lan-egoerari buruzko egiaztagiria.
- Curriculum vitae eta espediente akademiko dokumentatua.
- Honako eduki hauek garatuko dituen txosten labur bat, gehienez

3 orrialdekoa:

- 1- Oikonimiaren balioa ondare immaterial gisa.
- 2- Planteatzen dena bezalako bilketa-lan baten alderdi metodologiko aipagarriak.
- 3- Etxauribarko etxeen izenak biltzeko iturri interesgarriak.

6. Eskaerak aurkezteko epea

2022ko maiatzaren 27tik ekainaren 17ra aurkeztu beharko dira eskabideak.

7. Bekaduna hautatzea

Bekaduna 5 pertsonaz osatutako epaimahai batek hautatuko du:

- Udalek aukeratutako bi ordezkari
- Etxauriko Udaleko euskara teknikaria.
- Euskaltzaindiak aukeratutako ordezkari bat.
- Euskarabideak aukeratutako ordezkari bat.

Udalen ordezkarietako bat izango da epaimahaiburua, eta idazkari lanak euskara koordinatzaileak egingo ditu.

8. Zenbatekoa eta ordainketak.

Beka 3.000 eurokoa izango da, eta bi ordainketa berdinetan banatuko da: bata urrian eta bestea lanaren amaieran.

Bekadunak, lana ez badu amaitzen, udalei itzuli beharko die jasotako diru guztia.

Ikerketa lanak eragin ditzakeen gastuak bekadunaren kontura izango dira.